



LehenHezkuntza

3. Moduluaren gida. Komunikazio Gaitasunak **DIZIPLINARTEKO LANA (DAL) EGITEKO GIDA**

2019-2020

AURKIBIDEA

1. DALaren aurkezpena.....	2
2. Arautegia.....	3
2.1. Dal-a egiteaz salbuestea.....	3
3. Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak.....	4
4. Lanaren garapena.....	6
4.1. Proiektu gauzatzeko faseak.....	7
4.2. Lanaren atalak: lanaren ahozko defentsa eta idatzizko karpeta-dosierrak	8
5. Ebaluazioa.....	9
5.1. Dal-aren dagokion puntuazioa.....	9
6. Eranskinak.....	11
6.1. I. Eranskina. Kultura ondareari -buruzko fitxa.....	11
6.2. II. Eranskina. Banakako lanaren auto-ebaluaziorako errubrika.....	12
6.3.III. Eranskina. Moduluaren koebaluaziorako galdetegia.....	13
6.3. IV. Eranskina. Taldearen bilketarako akta eredua.....	14
6.4. V. Eranskina. Proiektu gauzatzeko bete beharreko lanen kronograma orientagarria.....	15

1. DALaren aurkezpena

Kultura ondareak kontzientzia kolektiboa sortzeko zeregin garrantzitsua betetzen du. Bere ezagutzak oinordetzan jasotako baloreak eta historian zehar euskal komunitatearen osagai izan diren objektu eta tokiak identifikatzeko aukera eskaintzen du.

Egokia litzateke eskoletan kultura ondarearekiko kontaktua eta ezagutza bultzatzeko jarduera ezberdinak aurrera eramatea. Hori kontutan hartuta Lehen Hezkuntza graduako 2. mailako 3. Moduluko irakasle taldeak DAL-a gai honen inguruan planteatzea erabaki du.

Argazkiak, herri-monumentuak, herri-esaerak, folklorea (kantuak, dantzak, etab.) eta bestelako ondasunak tresna didaktikotzat erabil daitezke. Kultura industrial, garaikidea eta ez-materiala kontutan hartzen hasi direnetik eskura daukagun ondarea zabaltzen joan da.

DAL-a, aurreko moduluetan bezala, talde lanean oinarritzen da eta moduluko irakasgai guztiak erlazionatzen dira bertan. Oraingoan Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza-metodologia (POI) jarraituz burutubeharkodalana.

DAL-aren kokapena 3. moduluaren barruan

Modulu honetako DAL-ak 3,5 kredituko balio du eta ondorengo ikasgaiei dagozkie, honela banatzen direlarik:

1. Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza: 0.5 kreditu.
2. Ikastetxearen Antolakuntza: kreditu 1.
3. Komunikazio Gaitasunaren Garapena- Euskara eta Gaztelania- Lehen Hezkuntza II: kreditu 1.
4. Musika, Lehen Hezkuntza: kreditu 1.

DAL-aren antolamendua eta jardunaldia

- Proiektua egiteko lan taldeak, txikiak- kopurua zehaztuko da matrikula dakigunean -osatuko dira, eta orden alfabetikoki jarraituz antolatuko dira klaseko kideen artean.
- Proiektu gauzatzeko 112,5 lanordu egin beharko dituzte ikasleek 7 astetan banatuta. Aste horietako 2 presentzialak dira eta moduluko ikasgai guztiek parte hartuko dute dagozkien eskola ordutegiko klase magistral eta praktikokoak proiektua garatzeko erabiliz. Ikasle bakoitzak, batz bestea astean, 16 lanordu bete behar ditu.
- Talde bakoitzak bi tutoretza-saio izango ditu, gutxienez.

DAL-aren helburuak¹

- Kultura-ondarea herri baten historia ezagutzeko ezinbestekoa iturria dela ulertzea.
- Komunikazioaren garrantziaz eta daukan eraginaz jabetzea.
- Denboran zehar euskal komunitatean sortutako herentzia kulturala jaso, mantendu eta suspertzea.
- Ondareari begira jarrera kritikoa eta erantzukizunean oinarritutakoa sustatzea.
- Kultura-ondareri buruzko Lehen Hezkuntzarako ikus-entzunezko adierazpen proiektu bat diseinatzea (**bideo bat**), kultura ondarearekiko errespetu eta erantzukizun jarrerak sustatuko dituen.

Horregatik, beharrezkoa da DAL-a aurrera eramaterakoan, talde bakoitzak gauzatu duen proiektuan honako arlo hauekin zerikusia duten bi ondare adibide lantzea:

- Elezaharrak, mitoak eta ohiturak (2)
- Musika (2).
- Hondar ukigarriak edo materialak

¹ DAL-ak euskararen erabilera inklusiboa xedea du. <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/euskararen-erabilera-inklusihoa>

2. Arautegia

DALa egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
 2. Graduiko ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
 3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.
 4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu². Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita.

Hori horrela, eskoletara etorriko ez diren ikasleak (kirolariak, lanagatik ezin dutenak, e.a.) azken azterketa egiteko eskubidea izango dute ikasgaiaren gaitasun guztiak erakusteko. Ikasle hauek idatzizko lana eta bere ahozko froga (%100) ere egin beharko dituzte, ahozko defentsa moduluaren bi irakasle osatutako epaimahai baten aurrean izango da.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da. DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

^{2 2} EHUko Akademia araudia kontsultatzeko <https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/akademia-araudiak>

3. Gaitasunak eta Ikastearen emaitzak:

Dalaren bidez 3.Moduluko ikasgaien gaitasun Orokorrak zein Graduako Zeharkakoak³ landuko dira gai nagusia (Ingurune-ko -kultura ondarea komunikatzeko) eta diziplina artean gauzatu beharreko lana (norbere inguruko kultura-ondarea komunikatzeko ikus-entzunezko proiektu-bideo-baten diseinua) medio.

Ebaluatu beharreko gaitasunak	Ikastearen emaitzak	Ebaluazio jarduerak
G1: Ikastetxearen antolakuntzarako material berria sortu eta sailkatu inguru sozialaren (ezagutzaren gizartea eta bertako testuinguru soziokulturala) eta inguru instituzionalaren (hezkuntza sistema eta hezkuntza administrazioa) ezaugarriak erreparatu.	Haur hezkuntzako kultura ondareei lotuta azter daitezkeen oinarrizko kontzeptuak ulertzea eta hautatzea.	Tutoretza saioa
	Proposatutako kultura ondareak abiapuntutzat hartuta iker daitezkeen ezaugarriak eta eszenatokiak proposatzea	
	Egungo ikastetxeen inguru sozialaren (ezagutzaren gizartea eta bertako testuinguru soziokulturala) eta inguru instituzionalaren (hezkuntza sistema eta hezkuntza administrazioa) ezaugarriak nahiz ikastetxeen erronka nagusiak identifikatzen ditu. Horren ondorioz, ikastetxe baterako kultura ondareak proposatzea eta esku-hartzeko proposamenak diseinatuta.	Tutoretza saioa Idatzizko lana
G2: Ikaskuntza, gizalegeko prestakuntza eta kultura-aberastasuna sustatuko dituen ikus-entzunezko informazioa antzeman eta bereiztea.	Lehen Hezkuntzarako entzunaldi, kantu, dantza, jarduerak diseinatu eta praktikara eramatea.	Tutoretza saioa Idatzizko lana
	Modu aktiboan parte hartzea eta esperientziak eta iritziak trukatzeko.	Tutoretza saioa
	Lehen Hezkuntzako testuinguruan agertzen diren testu motak ezberdinak erabili, sortu eta prozesatzea.	
	Ondorio kritikoak argitzea eta azken txostenean sartzea	Idatzizko lana
G3: Kultura, musika eta arte-adierazpenak modu kritikoan ezagutu, ulertu, estimatu eta aintzat hartzea, aberastasun eta gozamen-iturri gisa erabiltzea eta herrien ondarearen ezaugarritzat jotzea.	Ekoi-zen artistikoak eta estetikoak modu kritikoan aztertzea, hizkuntza bisualak kultura adierazteko, komunikatzeko eta ulertzeko tresna gisa erabili, eta informazioa eta dokumentazioa jasotzeko, behatzeko eta hautemateko prozesuak aplikatuta. Musika adierazpen eredu eta erabilera ezberdinak ezagutzea. Lehen Hezkuntzan musika ondarea ezagutzera emateko proposamenak burutzea. Lehen Hezkuntzarako entzunaldi, kantu, dantza, jarduerak diseinatu eta praktikara eramatea.	Tutoretza saioa Idatzizko lana

³ Graduako Gaitasun Orokorrak zein Zeharkakoak kontsultatzeko Eskolako web orrira joan: <http://www.ehu.eus/eu/web/irakasleen-ue-bilbao/lehen-hezkuntza-gradua>

G4: Taldean lan egitea eta partaidetza, erantzukizuna, auto-estimua, sormena, adiskidetasuna, askatasuna, lasaitasuna, dibertsioa, bizipoza eta uneko jardueretako kontzentrazioa bultzatzea.	Irakasleek ezarritako emate epeekin bat datorren lanerako plan adostu bat prestatzea	Taldearen bileren aktak
	Taldearen eginkizunen banaketa	
	Ikaskideei zer material bildu diren eta lanari zer ekarpen egiten dioten azaltzea	
	Taldearen indar guneak eta ahulguneak identifikatzea eta hobetu beharreko alderdiak proposatzea	
	Taldeak egindako lan saioak bilduko dituen txosten bat (aktak) editatzea	
G5: Euskara/Gaztelania menperatzea testuinguru eleanitzean hezkuntza lanerako adierazpen eta ulermen egokia erakutsiz, eta kultura-aniztasunari begira errespetuan oinarritutako jarrerak garatuz	Amaierako aurkezpenaren eta idatzizko txostenaren arteko koherentzia	Tutoretza saioa Amaierako Aurkezpena Idatzizko txostena
	Moduluko arlo ezberdinak integratuko dituen proposamen didaktiko bat egitea	
	Aurkezpenaren batasuna eta koherentzia	
	Adierazpen mintzairak (musika, plastika eta/edo gorputz heziketa) erabiltzea	
	Taldeakide guztien partaidetza	
	Sormena eta originaltasuna	
G6: Informazioa bilatzeko eta Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza, Ikastetxearen Antolakuntza, Komunikazio Gaitasunaren Garapena- Euskara eta Gaztelania eta Musika ekoizpen samurrak sortzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia ezberdinak modu egokian erabiltzea	Askotariko informazio iturriak erabiltzea	Tutoretza saioak Idatzizko txostena
	Ahozko diskurtsoan, erabili diren askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak era egokian integratzea	
	Informazio iturri ezberdinen bidez bildutako datuak modu kritikoan aztertzea	
	Idatzizko txostenean, erabili diren askotariko informazio eta komunikazio bitartekoak era egokian integratzea	
G7: Egoki hitz egitea eta idaztea eta adierazpen teknikak erabiltzen jakitea.	Idatzizko txostenean gidako atal guztiak behar bezala sartzea	Amaierako Aurkezpena Idatzizko txostena
	Arlo ezberdinetako terminologia espezifiko erabiltzea; ortografia eta gramatika zuzenak izatea	
	Ideiak modu ordenatu, koherente eta logikoan aurkeztea	
	Taldea talde lanaren dinamikara egokitzea; hori agiria modu koherentean antolatuta adieraziko da	
	Aurkezturiko ideiak arrazoitzea	
	Moduluko arlo guztiak integratzea	
	Zentzu kritikoa eta sormena	
	Proposamena ikasleek bideoari dagokionez dituzten balioak eta jarrerak sustatzeko egokitzea	

4. Lanaren garapena

3. Modularen gaia "Kultura-ondarearen komunikazioa" da.

Egin beharreko diziplina arteko lana (DAL) honako hau da: **bideo bat egitea**

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ikus-entzunezko komunikazio-proiektu bat, **bideo bat**, diseinatzea, kultura-ondarearekin erlazionatuta eta ondarearekiko errespetu eta erantzukizun jarrerak eta baloreak sustatuko dituen, eta proiektuaren txosten idatzia elaboratzea POI metodologiaren pausoak jarraituz.

Zer lortu nahi da 3. Modulu honetako DAL-aren bidez?

Moduluko ikaslegoak inguruko ondare kulturala modu zabalean hartuz, Lehen Hezkuntzan komunikatzeko baliabideak sortzea lortu nahi da. Horretarako, diziplina arteko ikuspegia (musika, komunikazio gaitasuna, ikusizko kultura eta ikastetxearen antolakuntza) eta inguru hurbiletik jasotako informazioa erabiliko da. Horretaz gain, ondare kulturalaren inguruko ikerketa lanak eta bideo baten elaborazioa aurrera eramaten beharko dituzte.

DALa garatzeko erabilitako den metodologia

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza-metodologia (POI) erabiliko da. Metodologia honen ardatzak ikaslea eta bere ikaskuntza-prozesua dira:

- Proposatutako egoera/gakoari aurre egin eta bideratzeko ikasleek hasieratik taldean lan eginez proiektu bat garatu behar dute. Galdera-sorta sortzaile batek ondorengo batzuk sortuko ditu eta erantzun horien soluzioetan datza Proiektuaren eginkizuna.
- Ikasleen jardueren plangintza egingo dute taldean, zereginak banatuz, zereginak dituzten testuinguruak aztertu eta ikertuz, eta finkatutako plana garatuz. Era berean erabakiak eta horiengandik etor daitezkeen ondorioak aurreikusi eta baloratzen joango dira.
- Metodologia honek ikasleari jarrera aktiboa eta taldekideekin elkarlana eskatzen dio, eten gabe ideiak, iritziak, teoriak, aplikazioak... kontrastatuz adostasunak modu oinarritu eta justifikatuan lortzeko. Taldearen gogoeta da metodologiaren muina, taldeak hasiera batean daukan ezagutzaren inguruko hausnarketatik abiatuz ezagutza berria sortzera bultzatzen baitu gogoeta horrek.

OHAR GARRANTZITSUA

- 1- Proiektuaren diseinua aurrera eramaterakoan ezinbestekoa da diziplina arteko ikuspegia une oro kontutan izatea, hori baita Dal-aren jatorrizko zentzua.
- 2- Gida honetan ondasun kulturalari buruzko bibliografiarik ez da eman, taldeak egin behar duen bibliografia bilakaera ez mugatzearen. Horrez gain, irakasgaia bakoitzaren bibliografia kontsulta daiteke.

4.1. Proiektua gauzatzeko faseak. Bideo bat egiteko ibilbidea. Proiektuak galdera edo atala honi erantzun beharko dio

Nolakomunikatu edo ezagutarazi inguruneko kultura-ondarea Lehen Hezkuntzako ikasleagoari?

Lehenengo hausnarketa, bideoaren ekoizpena NORI bideratuta egongo den izango da, hots, egin beharreko materialaren hartzailea nor den identifikatu behar da. Beraz, material ekoiztu aurretik ikasleriari ezagutzea, funtsezkoa da. Horretarako, ikasleen testuinguru geografikoari eta testuinguru soziokulturalari hurbildu behar da. Hurbilketa honen bitartez ikasleen ikaste-irakaste prozesuaren betebeharrei erantzuna emango da bideoaren sorkuntzaren laguntzarekin.

Gainera, lehenengo galdera horri erantzuteko proiektuaren bukaerako lanak osatu aurretik beste galdera batzuei erantzun beharko zaie.

Proiektuaren zehar erantzun beharreko galderak.

1. GALDERA: zer da kultura-ondarea? Zein kultura-ondare mota daude?

Erantzuna, banakakoa eta taldeka. Erantzuna bilatzeko prozedura:

- Zer dakigu gai honi buruz? Honen inguruan zerbait entzun edo jaso dugu?
- Erantzuna aurkitzeko hainbat aukera (hipotesi) bilatu. Taldekideen ekarpenak idatzi, alde batetik gaiari buruz ezagutzen dutena eta bestetik irtenbidea bilatzeko eman dituzten aukera guztiak.
- Besterik jakin ahal dugu? Non bilatu? Informazio gehiago lortzeko zereginak eta aukerak banatu beharko dira.
- Informazio bilatu, aukeratu eta aztertu.
- Taldekideei bilaketaren emaitzak jakinarazi. Informazio berria aztertu, eta proposatutako arazo edo galdera berriz definitu. Proposatutako gaien ebazpena taldean osatu.

2. GALDERA: zein da gure inguruneko kultura-ondarea?

Erantzuna, banakakoa eta taldeka. **Banakakoa**, taldekide bakoitzak 6 fitxa, I. Eranskina (ondare kulturala bakoitzarekin 2 fitxa, gogoratzeko begiratu gida honen 2 orrian). **Taldekakoa**, aukeratutako kultura ondareen fitxak, I. Eranskina.

- Arazoari edo galderari erantzuna bilatzeko, berriro aurreko galderan (1) jarraitutako prozedura jarraitu.
- Gure kultura-ondare ikertu, eta honen identifikazio eta sailkapena egiteko aurreko galderan lortutako ezagutza berria aplikatu.

3. GALDERA: zertarako balio du kultura-ondareak? Zer ikasteko aukera eskaintzen digu?

Erantzuna, banakakoa eta taldeka.

- Galdera/arazo honi erantzuterakoan Lehen Hezkuntzako curriculumak kontuan hartu. 4. Galdera ere honen arabera bideratuko da.

4. GALDERA: nola ezagutarazi/komunikatu behar zaio Lehen Hezkuntzako ikasleagoari gure ondarea?

Erantzuna, taldekakoa.

- Atal honetan, Lehen Hezkuntzan kultura-ondarea ezagutzera emateko proposamen konkretu bat aurkeztu behar da hainbat zehaztasun finkatuz, zein zikloari zuzenduta dagoen, nori bideratuta bideoa, testuingurua, helburuak, gidoi literario, "story board" eta bideo osatzeko erabiliko diren softwarea eta tresnak zehaztea
- Zazpi astean DAL-a aurrera eramateko bukaeran kronograma proposatzen da orientabide gisa (V. Eranskina. 16 orrialdean)

4.2. Lanaren atalak: lanaren ahozko defentsa eta idatzizko karpeta-dosierrak

Lanaren ahozko defentsa

Egindako Proiektuaren ahozko azalpenari dagokion lanaren defentsa argudiatua egin beharko da, 10 bat minututan (bideoren aurkezpena barne). Ahozko azalpenerako, honako gidalerro hauei jarraitu beharko zaie:

- Norbera aurkeztu
- Gaia aipatu (justifikazioa)
- Aurkibidea egin (testuingurua, ondare aukeraketa, aipamenak...)
- Aurkibidearen garapena (testuingurua, testuingurua, ondare aukeraketa, aipamenak...)
- Ondorioak (bideoak LH eskaintzen dituen aukerak defendatu eta argudiatu).

Oharra: Entzulea ezin da galdu hitzaldi batean, beti jakin behar du emanaldiaren barruan zein unetan dagoen, beraz hizlariak azaltzerakoan erabili behar ditu eten gabeko lokailuak.

Idatzizko karpeta-dosierrak: bi atal izango ditu

Lanaren ezaugarriak unibertsitate mailakoak izango dira, GRAL-eko⁴ formatuaren errespetatu behar dute eta bibliografia-erreferentziak bat etorri beharko dute APA arautegiarekin.

A.Txostena: txosten honek funtsean AOIko faseetan taldeak egindako ekarpenak jaso behar ditu. 15 orri gehienez.

Azala	15 Orri
Aurkibidea	
Sarrera	
1.Galdera-taldeka	
2.Galdera-taldeka I Eranskina (11 orrian)	
3.Galdera-taldeka	
4.Galdera-taldeka: gidoi literario, "story board" eta bideo osatzeko erabiliko diren softwarea eta tresnak zehaztea. Bideo 5 minutu baino gutxiago luzapena.	
Bibliografia-erreferentziak	

B. Txosten-eranskinak: txosten honek AOIko faseetan taldekide bakoitzak egindako ekarpenak eta taldeko funtzionamendu arauak jaso behar ditu

ERANSKINAK
1.Galdera-banakakoa
2.Galdera-banakakoa. I. Eranskina. (11 orrian) Taldekide bakoitzak 6 fitxa (ondare kulturala bakoitzarekin 2 fitxa, gogoratzeko gida honen 2 orrian begiratu).
3.Galdera-banakakoa
Taldeko eta banakako gogoeta eta auto-ebaluaziorako errubrika. II. eta III Eranskinak (12 eta 13 orrian)
Proiektu diseinatzeko erabilitako dokumentazioa
Taldeko bileren aktak. IV. Eranskinean akta egiteko eredua (15 orrian)

⁴ Eskolako web orrietan GRAL-eko arautegian topa ditzakezue idatzizko lana egiteko. Irakurri 1-Zer ezaugarri ditu oroitidazkiak? 2- Zein formatu eta luzera izan behar ditut GRALak? 3-APA arauak atalak.

<http://www.ehu.eus/documents/2955630/3360464/Gida+GRALA+Irakasleen+Eskola+Bilbo2016.pdf>

5. Ebaluazioa

3.Modulu irakasle taldeak DAL-ean izan duen parte hartzea gainbegiratu du, eta horretarako honako irizpideak kontuan hartuko ditu:

- Ikasle guztiek derrigorrez egin beharko dute moduluko DAL-a.⁵
- DAL-ak irakasgai bakoitzaren notaren %16 suposatzen du.
- Irakasgai gainditu ezean, baina DALa gaindituz gero, dagokion nota gorde egingo da hurrengo ez ohizko deialdira arte (ekaina -uztaila). Aldiz, hauxe da, DALaren lana ez bada gainditzen, egin behar den idatzizko txostenari zuzenketak egitea gomendatzen da. Ez ohizko deialdirako (ekaina -uztaila), lanak ez baditu behar diren gaitasunak errespetatzen gainditzeko, DALaren emaitza Moduluaren ikasgaietan kontutan hartuko da. Hau da, ikasgaiaren nota DALaren portzentajea (1,6) kenduta izango da .
- Azken ebaluazio bidez ebaluatuak izango diren ikasleek idatzizko azterketa eta honen ahozko aurkezpena egin behar dituzte Fakultateko ipinitako egutegian. Irakasgai gainditu ezean, baina DALa gaindituz gero, dagokion nota gorde egingo da hurrengo ez ohizko deialdira arte (ekaina -uztaila). Aldiz, DALaren lana ez bada gainditzen, ez ohizko deialdirako (ekaina -uztaila) lanaren zuzenketak egin beharko dituzte. Ez ohizko deialdi honetan, lanak ez baditu behar diren gaitasunak errespetatzen gainditzeko, DALaren emaitza Moduluaren ikasgaietan kontutan hartuko da. Hau da, ikasgaiaren nota DALaren portzentajea (1,6) kenduta izango da .
- Azken ebaluazioko idatzizko lanak eta honen ahozko defentsak %16 suposatzen dute.

Hizkuntza gaitasuna. Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean – beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik –, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna

Diskurtsoaren ulergarritasuna

Hiztegia eta Ortografia

Ergatiboa eta komunztadura

Plagioari dagokionez, Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

5.1. DAL-ari dagokion puntuazioa: Ikasleak %20 eta irakasleak %80.

	IKASLEAK	IRAKASLEAK
Banakakoa	%10	%10
Taldeko karpeta-dosierria eta Proiektuaren ahozko azalpena		%40
Proiektuaren bideoa	%10	%30
Guztira	%20	%80

⁵ Edonola ere ebaluaziorako EHU-UPV 2017ko martxoaren 13a, Agintaritzaren Aldizkariaren ebaluazioaren xedapen orokorrak irakurri.

NORK EBALUATZEN DU	ZER EBALUATZEN DA
80% Irakasleak: Banakako lana Taldeko karpeta-dosierra Proiektuaren ahozko azalpena Proiektuaren bideoa	-Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira, koherentziaz eta kohesioaz lokailuak erabiliz. -Terminologia, ortografia eta gramatika. -1, 2 eta 3 galderei aztertzearen garapenaren eta arrazonamenduaren bilakaera. -Txosteneko atalak: azala, aurkibidea, sarrera, galderak, story board eta bibliografia. -Ahozko aurkezpenaren azpiegitura errespetatu. Lanaren ahozko defentsa atalak. -Lantalde kohesionatu gisa aritu dira eta baliabide linguistikoen erabilpena egokia izan da (lokailuak, erdarakadarik ez, etab.). -Proiektuaren atalguztiak landuta daude hartutako testuinguruari eta helburuari erantzunez. -Ahozko diskurtso zein irudiena koherentziaz eta kohesioaz garatzen da. -Edukiaren kalitatea, ondo pentsatuta testu (testuinguruarekin lotura, argia, laburrak, luzeak...) eta irudiak (asko, irudien tamaina, pixelak...). - -Efektuak eta iraganbideak ba datozen proiektuaren helburuarekin. Materiala eta doinua.
%20Ikasleak %10Banakakoa %10 Bideoa	-Taldeen partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen, etab.) Taldeareneztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut. -Taldeen burututako bileraguztietara joan naiz esleitutako zereginakeginda eta esleitutakolana egiteko behar bezainbeste denbora eman dut. -Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala. - Beti nago irekia taldeko beste edozein kideren kritikak edo iradokizunak entzuteko. -Lanaren testuingurua zehaztuta dago. Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira. - Argumentazioak koherenteak dira. -Gaiaren ulermen sakona dago eta arrazoibidean heldutasuna erakusten da. -Informazio iturrien erabilera egokiada, planteatutako oinarriak sostengatzeko. -Testuinguru zehaztea. Prestakuntza, antolamendu eta sormena. Story board. -Edukiak. Egiaztatutako iturriak erabili. Testu eta irudiak. Bideoaren luzapena, denbora. -Efektuak eta iraganbideak testuinguruari eta helburuei egokituta.

6. ERANSKINAK

Kultura-ondareari buruzko fitxa

I. Eranskina

Hautatutako kultura-ondarearen testuingurua:

1. LH zein maiarako?
2. Zein eskolarako?
3. Helburuak.

Hautatutako kultura-ondarearen datu garrantzitsuak

Ondare izena eta arloa:

Egilea:

Urtea:

Tokia:

Datuak non aurkitu dituzun:

Deskribapena. Nabarmentzeko elementu historiko eta teknikoak.

Hautatutako testuinguruaren arabera, hezkuntza-ikuspegitik interesgarriak diren edukiak.

Izena eta abizenak:

GOGOETA EGITEKO GALDERAK

1. Zer ekarpen egin diot lantaldeari?

2. Zer ekarpen egin dit niri lantaldeak?

3. Aipatu talde-lana eramaterakoan izan diren alderdi baikorrak eta zailtasunak:

Zer nota jarriko zenioke zure buruari? (10etik)

MODULUAREN KOEBALUAZIO-GALDETEGIA

III. Eranskina

IZEN-ABIZENAK:

TALDEAK EMANDAKO NOTA EGINDAKO BIDEOARI (%10):_____

Justifikatu zure taldearen ikaskidei jartzen diezun kalifikazioa (0tik 10era) hurrengo galderei buruz:

KOEBALUAZIOA		x		y		z		...		...	
		0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa	0-10	Justifikazioa
1	Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (Taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen,...)										
2	Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut										
3	Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda										
4	Esleitutako lana egiteko behar bezain beste denbora eman dut										
5	Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala (zehaztu)										
6	Parte hartu du bideoaren antolakuntzan										
7	Parte hartu du bideoaren grabaketan										
8	Testu eta irudi ezberdinak sortzen laguntzen du										
9	Ahozko aurkezpenean parte hartu du										
10	Idatzizko karpeta-dosierrean parte hartu du										

	Hasiera ordua:	Lekua:	Amaiera ordua:	
Taldearen izena:		Koordinatzailea: Idazkaria: Bozeramalea:		
Bertaratutakoak:		Bertan izan ez direnak:		
Aztertutako gaiak: - - -				
Hartutako erabakiak:				
Hurrengo bilerarako eginkizunak:				
Zer?	Nork?	Noiz?	Materiala	Oharrak:
Hurrengo bileran aztertu beharreko gaiak: 1- 2- 3-				
Hurrengo bilkuraren data:	Lekua:		Ordua:	

Proiektua gauzatzeko bete beharreko lanen kronograma IV. Eranskina orientagarria

GALDERAK ETA LANAK	HILABETEA K ASTEAK	LAN MOTA: 1. ez presentziala 2. magistrala +gela praktikak edo Dal-astea	NORK EGITEN DU
1. Zer da kultura-ondarea? Zein kultura-ondare mota daude? Erantzuna: taldeka eta banakakoa 2. Zein da gure inguruneke kultura-ondarea? Erantzuna: taldeka eta banakakoa. Banakakoa, taldekide bakoitzak 6 fitxa (I. Eranskina, begiratu 2 orrian).	Iraila 9-13	Ez presentziala	Irakasleak - modulu sarrera
	Iraila 18	Derrigorrezko asistentzia	Hitzaldia - Juliana aretoan 11etan
	Iraila- Urria 24-25	Ez presentziala	Ikasleak
	Urria-Azaroa 28-01	magistrala +gela praktikak	Ikasleak eta Irakasleak
	Azaro 4-29	Ez presentziala	Ikasleak
3. Zertarako balio du kultura-ondareak? Zer ikasi dezakegu hartatik? Erantzuna: taldeka eta banakakoa	Abendua 2-6	magistrala +gela praktikak	Ikasleak eta Irakasleak
	Abendua 9-20	Ez presentziala Lanak eman eta aurkezpenak	Ikasleak
4. Nola ezagutarazi edo komunikatu behar zaie Lehen Hezkuntzako ikasleei gure ondarea? Erantzuna: taldeka -Gidoi literarioa. -Story board. -Bideo osatzeko erabiliko diren softwarea eta tresnak zehaztea. -Bideoa (5 minutu gehienez). Erantzuna: taldeka			